



El País del Bidasoa Txikik 10 eta 14 urte bitarteko ia 40 puntista bilduko ditu

Torneoa larunbat eta igandean ospatuko da Elizondon

El País del Bidasoa Txiki Torneoa dela eta, asteburu honetan bertan, 39 puntista bilduko dira Elizondon. Bertan, bi mailako pilotariak izango dira protagonistak, alde batetik, 2002 eta 2003an jaiotako pilotariak arituko baitira, eta bestetik, 2004 eta 2006 bitartean jaiotakoak, hain zuzen ere.

Txapelketa larunbatean hasiko bada ere, partaide batzuk ostiralean helduko dira Elizondora, hango frontoian harrera bat egingo baitiote eta jarraian Lekarozeko aterpetxera joango dira, afaldu eta lo egiteko.

Lehiaketako lehenengo fasean, neska-mutilek zortzi kiniela jokatuko dituzte. Lehenengo laurak larunbat goizean izango dira ikusgai, 10:30 eta 14:30-ak bitartean, eta beste laurak, berriz, arratsaldean jokatuko dira, 16:30ean hasiz, eta 19:00retan bukatuz.

Puntuazio altuagoa lortuko dituzten bi atzelariek eta bi aurrelariek 19:15etan iragarrita dauden finalerdietarako txartela eskuratuko dute. Gauzak hala, kanporaketa hauen irabazleak igandean 12:30ean ospatuko den finalean egongo dira. Aldez aurretik, 11:00etan, hirugarren eta laugarren posturako norgehiagoka jokatu da.



El País del Bidasoa Txiki reúne a casi 40 puntistas de 10 a 14 años

El torneo tendrá lugar este sábado y domingo en Elizondo

Elizondo reunirá este fin de semana a 39 puntistas en el Torneo El País del Bidasoa Txiki, que se disputará en dos categorías diferentes, una de las cuales aglutina a los y las pelotaris nacidos en 2002 y 2003, y la otra comprende a todos aquellos nacidos entre 2004 y 2006.

Aunque la competición en sí no arrancará hasta el sábado, algunos de los participantes llegarán el viernes a Elizondo, en cuyo frontón se les hará una bienvenida antes de ir a cenar y dormir al albergue de Lekaroz.

El campeonato constará de una primera fase en la que los chicos y chicas, en ambas categorías, disputarán una serie de quinielas. Las cuatro primeras tendrán lugar el sábado por la mañana, entre las 10:30 y las 14:30, y las cuatro últimas por la tarde, entre las 16:30 y las 19:00 horas.

Los dos zagueros y los dos delanteros que hayan obtenido mejor puntuación en cada categoría disputarán las semifinales, anunciadas para las 19:15 horas, mientras que los que resulten triunfadores en estas eliminatorias disputarán la final el domingo, a partir de las 12:30 horas. Antes, a las 11:00 horas, se habrá jugado el duelo por el tercer y cuarto puesto.